


Ipuina nola landu gelan:

## BAT ETA ZAZPI

Egilea: [Gianni Rodari](#)

Itzulpena: Joseba Ibarra Bustinza



*Ume bat ezagutu dut eta zazpi ume zen.*

*Erroman bizi zen, Paolo zuen izena eta bere aita tranbia gidaria zen.*

*Baina Parisen ere bizi zen, Jean zuen izena eta bere aitak auto lantegi batean egiten zuen lan.*

*Baina Berlinen ere bizi zen, eta han Kurt zuen izena eta bere aita biolontxelo irakaslea zen.*

*Baina Moskun ere bizi zen, Yuri zuen izena, Gagarin astronautak bezala, eta bere aita igeltseroa zen eta matematika ikasten zuen.*

*Baina New Yorken ere bizi zen, Jimmy zuen izena eta bere aitak gasolindegia zeukan.*

*Zenbat esan ditut? Bost. Bi falta dira.*

*Batak Txu zuen izena, Shanghain bizi zen eta bere aita arrantzalea zen; azkena Pablo zen, Buenos Airesen bizi zen eta bere aita pintorea zen.*

*Paolo, Jean, Kart, Yuri, Jimmy, Txu eta Pablo zazpi ziren, baina denak ziren ume bat, zortzi urte zituen umea, irakurtzen eta idazten bazekiena eta bizikletan eskuak eskulekuan jarri barik ibiltzen zena.*

*Paolo beltzarana zen, Jean ilehoria eta Kurt gaztaina-kolorekoa, baina ume bera ziren. Yurik azal zuria zuen eta Txuk azal horia, baina ume bera ziren. Pablo espainolezko zinera joaten zen eta Jimmy ingelesezkora baina ume bera ziren eta hizkuntza berean egiten zuten barre.*

*Orain nagusiak dira zazpiak eta dagoeneko ezingo diote gerra egin elkarri, zazpiak gizon bakarra baitira.*

### Un et sept

Auteur: [Gianni Rodari](#) Illustrateur : [Beatrice Alemagna](#) Seuil jeunesse, - 2001

Bideoa frantsesez:

[http://www.ac-paris.fr/portail/jcms/p1\\_95473/dire-lire-et-ecrire-a-partir-d-un-album-de-jeunesse](http://www.ac-paris.fr/portail/jcms/p1_95473/dire-lire-et-ecrire-a-partir-d-un-album-de-jeunesse)  
(lire, dire, écrire)

“Hasiara-Gela” Pariseko “Rue de Villette” Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan, 2004ko ekaina.

Partaideak: CLIN (*Cours Langue Initiation*) eta jatorri ezberdinetako 13 ikasle.

### 1. (lehen bideoa)

Ipuina ezagutzeko eta lehenengo irakurketa egiteko, gela “balioanitz” batean biltzen dira ikasleak (gimnasilekuan, areto nagusian...), horrela istorioa entzuteko eta hobeto ulertzeko egoera lagungarriagoa sortuz.

Lehenik poliki-poliki irakurriko da ipuina, irudien laguntza erabiliz. Gero, bigarrenaz arinago irakurri ondoren, testuaren ulermenari buruzko galderak egingo dira:

- *Zer dakigu ume horietaz? Ez dute denek hizkuntza bera egiten?...*

Galdera horien bidez testuaren egitura nabarmenduko da (umeen nortasunari buruzko egitura errepikatuak: izena, jatorria, aitaren lanbidea, antzekotasun eta ezberdintasunak...). Horrela berriro ekiten zaio testuaren ulermenari eta errazago egingo zaie geroago buruz gogoratzea.

- *Tira, orduan... Planetako toki ezberdinei buruz hitz egiten da... Planisferioan (atlasean) ikusiko dugu non bizi diren ume horiek.*

Ume batzuk Madagaskarretik datoz, Txiletik, Ukrainatik, Serbiatik, Txinatik, Marokotik, Kabo Verdetik, Malitik... Haientzat oso jarduera “egituratzailea” da, planisferioan historikoki eta geografikoki kokatu ahal izateko: *nondik natorren, non nagoen, zein ibilbide egin dudan...* Idatzizko lehen jarduera maparen inguruan hasiko da.

Hau da proiektu honen lehen helburua: “Hasiara-Gelan” (Frantzian “CLIN”) ikasleek euren historia apur bat kontatzea eta ikastetxeko beste ikasleei erakutsi ahal izatea, betiere Gianni Rodari-ren testutik abiatuta.

### 2.

Lehen saioaren ondoren, beste zenbait aspektuk lagundu egingo dute liburuaren zentzu sakonagoa azaltzen.

Ikasleak ohituko dira dimentsio filosofikoagoa duten esaldiak komentatzen eta sartu egingo dituzte elkarrekin egindako liburu kolektiboan.

Jarraian, ikasle bakoitzak bere buruari buruzko testu labur bat idatziko du eta, azkenean, “Bat eta zazpi” narrazioan ikusitako egituraren arabera, azken testuak ikasle bakoitzak eta denek elkarrekin idatzitako zatiak izango ditu. Helburu nagusia hizketa, irakurketa eta idazketa erabiltzea da, horiek funtsezko tresnak baitira norbere buruaren ulermena eta adierazpena azaltzeko, transmititzeko eta partekatzeko.

### 3. (bigarren bideoa)

“Bat eta hamahiru” (hamahiru ikasle dira “euren” historia kontatzen dutenak)

Ikasleek euren burua aurkeztuz idatzi duten liburua prestatu ondoren, ozenki irakurriko dute euren ikaskideen aurrean.